



Bertso Egunak egingo ditugu datorren urtean

Urtarrileko ohiko hitzorduaz gainera, antzerako beste hiru saio antolatuko ditugu. Plaza biziberritzeko apustuaren parte izango dira; eta ez bakarrak.

2020ak egun bat gehiago izan du egutegian, baina egun gutxiago utzi dizkigu bertso plazan. Egin diren saioekin, eta egin ez direnekin ere bai, argi geratu da bertsoa bizigarria dela bertsolarientzat, zaleentzat eta herriarentzat. Horregatik, herriz herriko bertso-eskolen eta antolatzaileen lana balioan jartzeko eta zaleen gozamenerako, jarduerak antolatzen, sustatzen eta dinamikak laguntzen jarraituko dugu 2021ean.

Urteko lehen hitzordu potoloenetakoa izaten dugu Bertso Eguna. Urtarrilean izaten da, baina, 2021ean, ohiko

hitzorduaz gainera, Bertso Egun gehiago egingo ditugu. Urtarrilaren 30ean izango da lehena Hazparden (Lapurdi), eta, udaberriaren hasierara bitarte, beste hiru Bertso Egun antolatuko ditugu.

Laster eskainiko ditugu Bertso Egunen gaineko xehetasunak.

Bertsoarekin egingo ditugu Bidaiak

Aurtengo udaberriaren ekin genion plaza biziberritzeko egitasmoari: hasiera bateko publikorik gabeko eta areto barruko online saioek bilakaera izan

dute, egunean eguneko baldintzetara egokituz. Udazkenean, adibidez, Bertsoa Sutan emanaldia eskaini genuen Chillida Lekun, eta bide horretan jarraituko dugu datozen asteetan ere. Honenbestez, aipatutako Bertso Egunez gainera, sormenerako eta esperimentaziorako espazioak antolatzen jarraituko dugu, *Bidaiak* izenaren pean.

Urte berriak aurrera egin ahala ezagutaraziko ditugu datozen ekimenak. Egoerak horretarako tarte ematen duen neurrian, urte berriaren bertso plazan maizago elkartzeko gogoz gaude.



JON MAIA SORIA

Donostia, 2020-11-27

Doinua: Ikusten duzu goizean

Tunel ilun ta isila
ibiliaz pauso pila
hor bukaeran kandila.
Mundu berriak marratzu asmoz
bertsoa ez dago hila
urte hau buka dadila
eta animo kuadrila
goazen berriaren bila.

Lau Bertso Egun antolatuko dira urtarriletik udaberri bitartean./ XDZ

Bertsolari txapelketen zikloa atzeratu egingo da

2021ean izan behar zuen Bertsolari Txapelketa Nagusiak; aitzitik, aurretik zenbait lurraldetako txapelketekin gertatu bezala, atzeratu egingo dugu, datarik zehaztu gabe.

Datorren irailean hasiko litzateke 2021eko Bertsolari Txapelketa Nagusia, egoera ohikoa balitz. Ohikotik gutxi du egoerak, ordea, eta nekez betetzen dira txapelketa behar bezala gauzatzeko baldintzak.

Pandemiaren eraginez, bertso saio ugari bertan behera geratu dira, eta bertso-eskolek zailtasunak dituzte normaltasunez aritzeko. Bestalde, orain pentsaezina den jende multzoa elkartzen duen kultur ekitaldia da txapelketa, eta, osasun irizpideak aintzat, gerta liteke momenturen batean parte-hartzaileen bat parte hartu ezinik geratzea. Hasi eta buka, txapelketa gauzatzeko bermerik ez dago.



Aurten aurreikusita zeuden txapelketek eman dute begitandutako zantzu horien berririk. Udazkenean bi txapelketa genituen jokatzekoak, eta atzeratu egin ditugu biak: Bizkaiko Bertsolari Txapelketa zein Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa elkartzen dituen Xilaba txapelketa. Lehenean,

Udabarria Bertsotan sailkapen fasea eginda hurrengo pausoa ez ematea erabaki genuen, eta, bigarrean, txapelketa eten egin genuen, urriaren amaieran Frantziar Estatuan egoera okertu eta neurri berriak sartzearekin batera.

Era berean, 2021eko lehen hilabeteetan egitekoak ziren Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketak atzeratuko genituela aurreratu genuen duela zenbait aste.

Honenbestez, lurralde horietako txapelketak ez ezik, lurralde horietan jazotakoa aintzat izaten duen Txapelketa Nagusia ere atzeratzea erabaki dugu, data berririk zehaztu gabe. Pandemiaren bilakaeraren eta bertsolaritzaren egoeraren arabera erabakiko dugu data berria.

Hala ere, eta berripaper honetan aurreratu bezala, bertsolaritzaz gozatzeko guneak bultzatzen eta antolatzen jarriko dugu indarra urte berrian ere.

Binakako txapelketa egingo dugu Araban

Bertso plaza sustatzen jarraitzeko, egoera honetan bideragarriagoa den binakako txapelketa egiteko lanetan dabil Arabako Bertsozale Elkartea.

Arabako txapelketako lau kanporaketa saio egin ondoren, eta egoeraren ziurgabetasunak bultzatuta, bakarkako ohiko txapelketa oraingoz bere horretan utzi eta beste txapelketa baten aldeko apustua egin du Arabako Bertsozale Elkartea: Binakako Bertsolari Txapelketa martxan jartzeko lanetan ari gara.

Bertsolariek lasai kantatu ahal izateko baldintza egokiak bermatzen ez direla eta egoeraren aldakortasunak berak sortu ditzakeen gorabeherak izan dira erabakia hartzeko arrazoi nagusiak. Asmoa, hemendik aurrera ere, bertso plaza eta kultura sustatzen jarraitzea da, eta, nola ez, bertsolari eta bertsozaleei bertsoaz gozatzeko lekuak eskaintzen jarraitzea ere bai.

Bizkaiko txapeldunen saioa egingo da abenduaren 20an, Getxon

Kopla barik zirkuituaren baitan antolatu dugu saioa. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai.

Zita berezia prestatu dugu *Kopla barik* zirkuituari amaiera biribila emateko: Bizkaiko zortzi txapeldunen saioa. Abenduaren 20an izango da Getxoko Muxikebarri zentroan, 18:00etatik aurrera. Oholtza gainean, esan bezala, zortzi txapeldunak: Jon Enbeita, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Xabi Paya, Arkaitz Estiballes, Fredi Paia, Etxahun Lekue eta Onintza

Enbeita. Gai-jartzaile taldearen esku egon da gaien prestaketa, eta Begoñe Olabarria izango da eguneko bozeramaile.

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai. Saioa, zelan ez, osasuna bermatzeko neurri guztiak hartuta egingo da.

Ahots Baten ekimena abenduaren 28an eta 29an izango da Azpeitiko Dinamoa sormen gunean

Pandemia tarteko, egun batzuetako egonaldia bi saiotan egingo dugu; harrera beroa izan du aurtoko edizioak ere.

Antzerkia, bertsolaritza, kantagintza eta kontalaritza edota literatura: kultur diziplina horiekin esperimintatzeko gunea da Ahots Baten. Urtean zehar diziplina horietan aritzen diren 1998 eta 2005 urteen artean jaiotakoei zuzendutako egitasmoa da, alegia, 15 eta 22 urte bitartekoei.

Azpeitiko Dinamoa sormen gunean izango da aurtengo Ahots Baten. Ez da ohiko egonaldia izango: bi saiotan gauzatuko da, abenduaren 28an eta 29an. Egun bietan 9:30ean elkartuko gara Azpeitiko Dinamoan; 18:30ean amaituko da saioa lehen egunean, eta 19:45ean bigarren egunean, bi eguneko jarduna biribiltzeko ikuskizuna eskainiko baita.

Lehen egunean, literatura eta bertsoa izango dira mami: Iratxe Retolaza literatura adituak hasiko du saioa, eta arratsaldean, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariak batuko dira taldera. Bigarrenean, Xanti Agirrezabala aktoreak eta Mursego kantariak hartuko dute parte; amaitzeko, Agirrezabalak *Satiro* bere bakarkako antzezlan eskainiko du.

Harrera beroa

Izen-emate epea itxi dugu, eta aipatzekoa da aurtengoa ere arakastatsua izen dela: plaza guztiak bete dira. Urtez urte,

gazteek gogotsu hartzen duten ekimena da Ahots Baten, eta, egoera berezia izan arren, aurtengoa ere ederki erantzun diote Mintzola Ahozko Lantegiak beste urtebetez egindako deialdiari.

Amaitu dira Ahostegunak

Bestalde, bigarren edizioa izan du aurtengoa Ahostegunak ekimenak. Urriaren 29an hasi zen, eta azaroaren 26ra arte, ostegunero, 18 eta 22 urte bitarteko gazteak elkartu dira Donostian. Antzerkia, bertsolaritza, kantagintza eta literatura eta kontalaritza izan dira astero gazte sortzaileen gozagari.

Pandemia garaian harrapatu bagaitu ere, beharrezko neurriak hartuta gauzatu dugu ahozko kultur sorkuntza oinarri duen hitzordua. Egun horietan lagun izan ditugu Olatz Salvador kantautorea, Erika Olaizola aktorea, Eli Pagola eta Odei Barroso bertsolariak, eta Oier Guillan sortzailea.

UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Ahozko Lantegiak elkarlanean antolatatu ditugu, Euskaltzaindiaren laguntzarekin, Donostian egoitza duten Tolare baserriko ganbaran egin baititugu saioak.



Abenduaren 28an eta 29an egingo da Ahots Baten, aurtengoa maskarekin beharko du izan. / XDZ



Puntu jarrita

BIXENTE HIRIGARAI

Gaiak jorrazteko momentuan, hurbiltasunak muga sozialak haustera garamatza eta alderantziz. Horiek horrela Oier, uste dut gaien aurrean geure burua zentsuratzeko dugun joera, testuinguruaren eta publikoaren arabera begiratu behar dela. Hortaz, lagun batek pausatu zidan galderari erantzun nahi nioke. Berak galdetu zidan, ea bertsutan pentsatzen dudana adierazten dudanez ala pertsonaia baten bitartez ari naizenez.

Galderak berak suposatzen du zentsuraren muga pertsonaiaren rola jokatzean ala ez dabilela. Esprikatu zidan harentzat berttua tresna sozial bat dela ofizialki erraten ez direnak, edo guti, denen aurrean botatzeko. Agian pintaden gisara ikusten dituela bertsuak. Baina bertsularitzan, hitz zorrotzak ahoskatzen dituenak bere burua ezagutzera ematen du.

Erantzun nion, nahi ala ez, koplakari gisa, beti rola batean nagoela. Urrunago joanez, uste dut, maskara uzten dugun aldi bakarra, hunkitzen gaituen gai bat salatu edo adierazi nahi dugularik dela, hau da, berttua idatzi edo kantatzeko urratsa gure baitarik egiten dugularik eta ez kantatzera deitu gaituztelarik. Libertimendu batean, adibidez, arazorik gabe kritikatuko ditut gizartea, pertsonak eta beren azken urteko trakeskeriak, baina, hartara deitu naute eta publikoak hori goititzen du. Taula baten gainean ezarri naute eta nik pertsonaia sortu dut. Puntu honek ere bereiz ditzake gaur egungo bertua eta pintada, pintada egin duena pertsona delako eta ez pertsonaia.

Egia erran, ez da pertsonaia baten rolean naizelako ez dudala pentsatzen dudana erraten. Zentsuraren muga ez dago beraz pertsona ala pertsonaia izatearen artean. Aldiz, publikoak jakitea noiz ari naizen ene baitakotik eta noiz ez, hori bai landu genezakeela. Zentzu honetan, gertatu izan zait, guti batzuek baizik ulertu zezaketen txiste edo ideia ez kantatzea, publikoaren gehiengo bidean ez galtzeko. Pettan Prebende adiskideari, galdegin nahi nioke ea batzuetan, ez duen merezi publikoaren gehiengo sakrifikatzea, gutxiengo batek gehiago gozatu ahal izateko.

Koplak

Leire Amenabar Larrañagak irabazi du GRAL Saria

Sortzaile kulturalak eragile sozialak? Errepertorio kulturalak: espazio, audientzia eta estetika berriak Leire Amenabarren ikerlanak eskuratu du Gradu Amaierako Lanei esleitzen zaien saria, 500 eurokoa. Hamabi lan jaso dira aurtengoan eta guztiek ere ahozko kultur sorkuntza oinarri izan arren, askotariko lanak eskuratu dira, maila onekoak gainera.

Poto-Finixa



Hemen nago!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Eskerrik asko, antolatzaile eta zale guztioi!

Urte berezia bezain gogorra izan da 2020a bertso munduarentzako: martxoan bertso plaza bertan behera geratu zen eta, orduetik, errekuperatzen eta osatzen ari da. Bertsozale Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue bertsoaren alde egin eta plazak antolatzen ari zaretenoi, zaleoi, bertsolari, gai-jartzaile zein bazkide guztioi urte honetan saioak egiteko eta bertsolaritza sustatzen jarraitzeko egindako ahaleginarengatik. Zuei esker bizi da bertsoa, zorionak guztioi!



Eskuragari www.lanku.eus atarian